

HEZITZAILEAK KONTUTAN IZAN BEHARREKOAK

2020

UDALEKU IREKIAK EGINGO DITUZTEN HEZITZAILEEK
KONTUTAN IZAN BEHARREKO IRIZPIDEAK ETA ORIENTABIDEAK
INJUVEKO PROZEDUREN ARABERA.

HEZITZAILEAK UDALEKU IREKIETAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

2020ko udan tokiko udalekuak egiteko bete beharreko baldintzak markatzen dituen protokoloa kontutan izanik, begirale eta hezitzaileentzat laburpen bat egiteko helburua du ondorengo dokumentu honek. Laburbilduz Hezitzaileak saioaren hiru fase edo momentuetan kontutan izan beharreko argibideak markatzen dira, baldintza orokorrak, saioa hasi aurretik, saioan bertan eta amaieran.

KONTUTAN IZAN BEHERREKO BALDINTZA OROKORRAK:

- Taldeak gehienez 10ekoak izango dira begiralea barne.
- Kanpoko ekintzetan 10eko taldeak gehienez 300 pertsona.
- Barneko ekintzetan 10eko taldeak gehienez 80 pertsona
- Pertsonen arteko distantzia 2 metrokoa izango da.
- Barnean segurtasun tarte (2 metro) mantendu ezin bada musukoa eta eskularruak jarriko dira.
- Eskuak maiztasunez garbitu: ekintza hasiera eta amaieran, dinamika berri bat hastean, mukiak kentzean eta doministiku egin ondoren.
- Esku larruak, hidrogelak eta musukoak behar adina izan partaide eta hezitzaileentzat
- Haur bakoitzak bere materiala erabiliko du ezin izango da elkarrekin banatu.
- Itxialdia dela eta neska mutilengan sortu diren kalte emozionalak kontutan izanik lanketa berezia egin beharko da emozioak kudeatzeko.

SAIO HASIERAN:

- Talde bakoitzak haurrak jasotzeko leku desberdina eta bakarra izango dute.
- Haurrak bilgunera etortzean tenperatura hartu eta apuntatu.
- Gurasoei galdetu sintomarik izan duen haurrak, eta apuntatu.
- Segurtasun eta higiena zaindu, behar denean EPI ak emanaz hurrei.
- Higiena eta segurtasun oharrak eta mezuak jarri paretetan.

SAIOAN ZEHAR:

- 2 metroko tartea zaindu.
- Ahal bada kontaktu fisikoak saihestu.
- Hurren sintomak zaindu.
- Ahal dela ekintzak kanpoan egin.
- Ekintzak barnean egin behar badira esku larruak eta musukoak erabili
- Erabilitako sudur zapi eta mukizapiak zuzenean zakarretara bota.
- Ekintzetako materiala ez elkar banatu.
- Eskuak maiztasun handiz garbitu(ekintza hasiera eta amaieran eta dinamika bakoitzaren hasieran.)
- Hamaietako ez elkar banatu.
- Edalontzi partikularrak erabili.
- Iturrietatik ez edan.
- Leku itxietan ordubete hiru aldiz gutxienez aireztatu.
- Ateen eutsilekuak, komunak, espazio komunak, legeak dioen garbiketa neurriak hartu.
- Hurrei zaintza eta higienari buruzko informazioa (prestaketa) eman.

SAIOA AMAITZEAN:

- Haur bakoitzak erabilitakoa berak gorde dezala.
- Saio amaieran eskuak garbitu.
- Saioan sortutako zakar eta hondakinak zakarretara bota zuzenean.
- Garbitzaileak garbiketa sakona egin dezala legeak markatzen duen bezala.